



HIRU3 BULETINA

Kaixo, **lagunok!**

Lortu duzue zuon sarrera 'Yoko eta lagunak' filmaren aurrestrenaldirako? Lasai egon, datozen asteotan zozketa gehiago egingo ditugu eta. Adi! Gainera, HIRU3ko bazkide izateagatik, **Karpin Abentura parkerako sarrera bat doan** izango duzue. Ikusi duzue, HIRU3ko bazkideok pila bat abantaila dituzue.

'YOKO ETA LAGUNAK' FILMAREN AURRESTRENALDIRAKO SARRERAK

Dagoeneko jakingo duzue, 'Yoko eta lagunak' filmaren aurrestrenaldirako **250 sarrera banatu** ditugu HIRU3ko bazkideen artean. 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat bereziki egindako film honek Vik izeneko mutiko baten istorioa kontatzen du. **Aurrerapen bideoak eta argazki galeria** bat ere baditugu zuontzat prest webgunean. Aurrestrenaldira joan ezin baduzue, lasai, **azaroaren 13tik aurrera zinema-aretoetan** ikusteko aukera izango duzue eta.



HAINBAT ZOZKETA MARTXAN

Filmak ikusteko sarrerak, Nafarroa Oinezeko kamisetak, Bértikal jolasak, Maya erlearen produktuak... gauza pila bat zozkatu ditugu, eta **gehiago ere etorriko dira**. Oraingoan, **5 Bértikal jolas zozkatu** ditugu zozketan parte hartzeko izena eman duten HIRU3ko kideen artean. Irabazleen izenak webean dituzue ikusgai. Ez bazaizue egokitu, lasai, laster **Maya erlearen produktu gehiago** zozkatuko ditugu eta. Adi!

KARPIN ABENTURA PARKERAKO SARRERA BAT DOAN

EITBk eta Karpin Abenturak lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute, eta, horri esker, Hiru3ko kideek **ehunka animalia** ikusteko eta egun zoragarria pasatzeko aukera dute. Etxeko txikiak Karpin Abenturarako **sarrera bat lortu ahal izango dute doan**, helduentzako sarrera bat erosiz gero. Guztira, **55 espeziatako 450 animalia** baino gehiago bizi dira Karpinen. Gainera, parkeak hainbat eremu ditu: **Animalia, Terrasauro, Gastornisland, Chavarri Jauregia, Dinotxiki eta erakusketa-aretoak**. Karpin Abentura parkean ikusiko dugu elkar!



IBAIZABALEN URRIKO LIBURUA ZOZKATU DUGU

Taz egin genuen bezala, aurtan ere, **Ibaizabal** argitaletxearen **liburu bat** zozkatzen ari gara **hilero**, hilabete horretan urteak bete dituzten Hiru3ko kideen artean. Zerrenda osoa ikusteko, **Hiru3ko** web orrira jo! **Urrikoa** zozkatu dugu, eta **OSKITZ ALDALUR GONZALEZ** izan da irabazlea. "**Bizikleta lapurtu didate!**" liburua jasoko du. **Zorionak, Oskitz!**